Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko azaroaren 4a, astelehena — 212 — Lunes, a 4 de noviembre de 2024



## EUSKO JAURLARITZA

### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

#### Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, Gipuzkoako Bide-Garbiketa Publikoa eta Hiri-Hondakin Solidoen Bilketaren Hitzarmen Kolektiboaren batzorde paritarioaren akordioa inskribatzeko, gordailutzeko eta argitaratzeko agintzen duena (kodea 20002275012004).*

AURREKARIAK

*Bakarra.* 2024ko urriaren 24an, batzorde paritarioaren 2024ko urriaren 10eko akordioa aurkeztu zen, hitzarmenaren testua interpretatzeari buruzkoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85.3.e) artikuluak xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2024ko urriaren 25a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (7852)

M.ª de las Nieves Martínez Gayoso, Precoren (CRL-LHK, Gipuzkoako Lurralde Egoitza) kudeaketarako Lurralde Arduraduna, Gipuzkoako Kale Garbiketa eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketarako Hitzarmen Kolektiboa Interpretatzeko Batzorde Paritarioaren akten idazkari gisa

ZIURTATZEN DU

Batzorde Paritario horrek honako akordio hau hartu zuen 2024ko urriaren 10eko bilkuran:

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

#### Delegación Territorial de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone la inscripción, depósito y publicación del acuerdo de la comisión paritaria del Convenio Colectivo de Limpieza Viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa (código 20002275012004).*

ANTECEDENTES

*Único.* El día 24 de octubre de 2024, se presentó el acuerdo de fecha 10 de octubre de 2024 de la comisión paritaria sobre interpretación del texto del convenio citado.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos del artículo 85.3.e) de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 25 de octubre de 2024.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (7852)

M.ª de las Nieves Martínez Gayoso, Responsable Territorial para la gestión del Preco (CRL-LHK, Sede Territorial de Gipuzkoa) en calidad de secretaria de actas de la Comisión Paritaria de interpretación del Convenio Colectivo de Limpieza pública viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa

CERTIFICA

Que dicha Comisión Paritaria adoptó el siguiente acuerdo en su sesión de 10 de octubre de 2024:

EK\CV GAO-I-2024-07852

Hitzarmenaren 23. artikulua argitzea.

23. artikuluko D) idatz-zatia honela idatzita geratuko litzateke:

*«23. artikulua. Aparteko haborokinak.*

Enpresak lau aparteko ordainsari ordainduko dizkie langile guztiei, honako baldintza hauen arabera:

A. Zenbatekoa: Hitzarmen honen II. eranskineko soldatataulan dagokion kategoriarako ezarritakoa.

Horrez gain, Gabonetako, martxoko eta udako ordainsarietan 30 eguneko antzinatasuna sartuko da, gehienez 3 biurteko eta 3 bosturteko, sortzapen-aldia edozein dela ere.

B. Izena: Artikulu honetan ezarritako aparteko ordainsariak Uda, Gabonak eta Porresko San Martin eta martxoko ordainsaria izango dira.

C. Ordaintzeko egunak:

— Udako aparteko ordainsaria: Ekaineko hilekoarekin batera ordainduko da.

— Gabonetako aparteko ordainsaria: Gehienez ere abenduaren 20an ordainduko da.

— San Martin de Porresko aparteko ordainsaria: Urriko nominarekin batera ordainduko da.

— Martxoko aparteko ordainsaria: Martxoko nominarekin batera ordainduko da.

D. Sortzapen-aldiak: Aparteko ordainsariak sei hilean behin sortuko dira, San Martín de Porresekoa eta martxoko ordainsaria izan ezik, horiek urterokoa eta egunez egunekoa izango baitira, eta lan egindako denboraren proportzioan ordainduko dira, justifikatu gabeko absentzietan eta ordainsaririk gabeko baimenetan sortu gabe.

— Udako ordainsaria: Urtarrilaren 1etik ekainaren 30era sortuko da.

— Gabonetako ordainsaria: Uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortuko da.

— San Martín de Porresko ordainsaria: Azaroaren 1etik urriaren 31ra bitartean sortuko da.

— Martxoko ordainsaria: Ordainketa egin aurreko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortuko da.

Aldi baterako ezintasun-egoerek ez dute ondoriorik izango 4 ordainsarietan, eta ondorio horietarako osorik izango dira.»

Nieves Martínez Gayoso jaunari, Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluaren Gipuzkoako Preco kudeatzeko lurralde-arduradunari, baimena eman diote Gipuzkoako Bide Garbiketa Publikoaren eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketaren 2023-2026 urteetarako Hitzarmen Kolektiboaren 23 D) artikulua inskribatu, erregistratu eta argitaratzeko beharrezkoak diren kudeaketak egiteko, Negoziazio Batzordearen izenean eta ordezkaritzan.

Aclaración del artículo 23 Convenio.

La redacción del apartado D) del artículo 23 quedaría como sigue:

*«Artículo 23. Gratificaciones extraordinarias.*

La empresa abonará a todo su personal, cuatro pagas extraordinarias que se ajustarán a las siguientes condiciones:

A. Cuantía: La fijada en la Tabla Salarial del anexo II del presente Convenio para la categoría que corresponda.

Adicionalmente, en las Pagas de Navidad, marzo y Verano se incluirán un total de 30 días de antigüedad, con un máximo de 3 bienios y 3 quinquenios, con independencia del período de devengo.

B. Denominación: Las Pagas extraordinarias fijadas en el presente artículo corresponderán a la denominación de Verano, Navidad y San Martín de Porres y paga de marzo.

C. Fechas de abono:

— Paga extraordinaria de Verano: Se hará efectiva junto con la mensualidad del mes de junio.

— Paga extraordinaria de Navidad: Se hará efectiva como máximo el día 20 de diciembre.

— Paga extraordinaria de San Martín de Porres: Se hará efectiva junto con la nómina de octubre.

— Paga extraordinaria de marzo: Se hará efectiva junto con la nómina del mes de marzo.

D. Periodos de devengo: Las pagas extraordinarias se devengarán semestralmente, excepto la de San Martín de Porres y la Paga de marzo que será anual y día a día, y se abonará en proporción al tiempo trabajado, no devengándose en las ausencias injustificadas, ni durante los permisos sin retribución.

— Paga de verano: Se devengará del 1 de enero al 30 de junio.

— Paga de Navidad: Se devengará del 1 de julio al 31 de diciembre.

— Paga de San Martín de Porres: Se devengará del 1 de noviembre al 31 de octubre.

— Paga de marzo: Se devengará del 1 de enero al 31 de diciembre del año anterior al abono.

Las situaciones de IT no tendrán repercusión en ninguna de las 4 Pagas, siendo a estos efectos íntegras.»

Autorizan a Nieves Martínez Gayoso, responsable territorial para la gestión del Preco en Gipuzkoa del Consejo de Relaciones Laborales de Euskadi a realizar en nombre y representación de la Comisión Negociadora de este Convenio las gestiones necesarias para la inscripción, registro y publicación del artículo 23 D) del Convenio Colectivo de Limpieza Pública Viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa para los años 2023-2026.